

Ezkerra eta etorkizunaren utopia (I)

Ezkerra zehatz-mehatz zerk ezagutarazten duen, ez dago garbi mugatzerik. Ez bait legoke azterketa formala eta materiala apartatzerik: biak batera egin beharko lirateke. Eta orduan ezker bakoitzak, edo fase historiko bakoitzeko ezkerak, aparte mintzatu beharko litzateke, ez noski ezkerrez erabat, edozein ezker-tzat unibertalsalki.

Ezagarri arrunta batzuk aipa litezke, halare.

EZKERRAREN BI EZAUGARRI ARRUNT

Honetaz ere literaturarik aski badago, eta ez dago luzatu beharrik. Muga nadin jeneralidade (nire us-tez) inportanteentara.

1. Ezkerra kontra dago.

Pribilegio guzien kontra; ezberdintasun soziala kontra; zapalketa sozial eta politiko guzien kontra; zapalketa sozial eta politiko guzien kontra; herri-eritziazen lotura eta manipulazio guzien kontra; aginpide kontzentrazioaren kontra esku gutiari; sozialismo guzien kontra; mitoen kontra. Estatuaren konfesionalismo (erlijioso nahiz filosofiko) guzien kontra. Gizonak gizona zapaltzeko edozein formaren kontra.

Ezkerra prometeikoa da egunoroko bizitzan ere: ohituen kontra dago, tradizioen kontra gehienetan, modaren kontra ia beti, tabuen kontra beti, kredo ofizialen kontra sekula sekulako. Ez du idelgorik, Jainkorik, ez jainkoskorik jauresten: ez urrezko txahalik, ez irakaste gutzijauntsurik, ez edozein gauza esatea libre duen jenio orijinalik, ez Gortearen alaitasuna produzitzen duen clownik, ez (Erregek, modak, norberak bere burua, edo beste ezinezko kororituriko edo kororirik gabeko) Aita Santu, mandarin xuri ala gorri, poeta laureatu, juez unibertsal eta esta pitorik eta flautarik ere; beste denak baino gaiztoagoak diren, edo izatea gustatuko litzaiekeelako, hala agertzen diren guzien kontra, eta beste denak baino hobeak diren, edo hala agertzen saiatzen diren guzien kontra, dago.

Eta, beti kontra egotearren, beti gauza guzien kontra daudenena kontra, egoten da noizean behin. Ezker-tiararak paradosazko esistentzia bat bizi du.

Baina ezkerre ez da ukazioa hutsik, ezker-tiararen buruan eta bihotzean kontradizio asko bada ere. Zer-bait nahi duelako, dago zer-baiten kontra. Ezker-tiar behin eta berriro osteratzen zaiona da (teknokratik

eta beren antzekoek, batez ere), ukazio hutsetan gelditzen dela. Baina ezkerak onartu nahi izaten ez duen kontrakarra da horixe. Eta, historian ikusten denez, zergatik onartu ez dadukana, gainera: ezker-raren ukazioak gauza positibo asko lortu bait du.

Halare, egia da, ezkerak askotan ez duela jakiten, positiboki nahi, zer nahi duen. Zer nahi ez duen bakarrik, dakiela.

Horregatik, ezker-tiar beti jarri behar zaion (eta ezkerak bere buruari jarri behar dien) galderra, hau-xe da: bere "kontra egotearekin" une bakoitzean zein ondorio dakarren. Mundu honetan ez on eta ez gaizto absoluturik ez dagoenez gero, ezeren alde ala kontra egote guziak (formalki) anibalenteak bait dira. Beraz, "kontra egoteko" modua eta beronea funtzio politikoa kasu bakoitzean ikertu beharko dira. Hau ere beharrezkoago da, hurrengo puntua gozagan edukitzen bada.

2. Ezkerak utopiarrekin operatzen du.

Egoera sozialaren eta errealdideen edozein ukazio ez da ezker-tiarra: atzeraka egindako ukazioak ere badira ("atzeraka" eta "aurreraka" konzeptuak ere ilunak izan arren, horrelaxe adieraztea zilegi ba-zait). Adibidez, faxismoa demokraziaren eta batez ere errepublikaren ukazioa zen. (Demokrazia eta errepublika eskasak ziren, noski: komunistek ere "ukazio" zituzten). Eta eskuin-radikalismoa, arrunko, ez da kontserbadore izaten, "atzeraka iraultzaile" baizik. Gure "abertzaleen" edo euskotarren artean ere suma daiteke hori: ukatu, gaurko egoera, beste edo-zeinek bezain bipiki ukatzen dute; baina etorkizuna iraganaldia oihartzu antzean, iraganaldia ber-ritzapen moduan, bururazten dizute nonbait. Haiea ustez, "gure kondairan zehar Euskal Herria demokra-zia hutsean bizi izan omen da", eta. Hauentzat histo-riako gailurrik erpinenak iadanik gertaturik daude: "Lege Zahar" ala Arbola santu, Elkano ala Eneko Loiolako ala Kardaberaz ala Leizarraga ala nik a) dakit zein. Horiek omen ditugu ereduak; herri-segi-tzea omen da, egin behar duguna. Nolanahita ere, histori-gailurrak iraganaldian ikusten dira beti, ez etorkizunean; eta gure denbora "epigonena" litza-teke, imitatzaile trebe eta jarraikile zintzoena. Fun-tsean, izan zena arraberritu bakarrik, nahi lukete. Berdin euskara batuari bagagozkie: batzuentzat behi-nolako "batasuna" hobe-a zen egin eta egingo eta egin ahaliko diren guziak baino, eta harixe eutsi edo huraxe ezarri besterik ez da egin behar. Eskuinari orainaldia ezker-tiar bezain higuigarri zaio, baina es-

kuinak iraganaldia "utopizatzen" du, mitifikatzen du. Haren balioa kanonizatzen du. (Euskera batuaren kon-tuan ezker-tiarren batzuk ere begitasun hori sferituz ez ote duten, galde liteke: izugarria da gizonak sen-titzen duen historiaren premia).

Beraz, ezkerre ez du edozein ukazio ezaguta-razten, ukazioaren joerak baino: ukazioak implika-tzen duen utopia etorkizunarentz orientatzeak. Etorki-zunaren izenetan bai oraina eta bai iraganaldia, biak batera, ukatzeak. Hots, ukazio utopikoak.

Kontra egote hutsa ez eskuindarra eta ez ezker-tiarra da, besterik gabe. Momentu historikoan araba-ria, eskuin edo ezker desberzi gerta litezke. Hippien mugimendua, adibidez. Berdin, 50-60 garren urteha-marraren haserlako protesta mugimenduak, etsipena eta nagieria konformistak astinduz, bai eskuina eta bai ezkerre biktortu ditu Europa guzian. Euskal Her-ria hategi ere ezker-tiar eragin zion. Baina, diru-dienez, protesta unibertsal eta desberziazien fase har-tatik irten nahi ez duten batzuk ere badaude; orduan esitox eta oherez bete ziren batzuk, batez ere. Kon-prenitzen da, irabazitako positiboak abandonatu nahi ez izatea. Eta orduan ezker-tiar zeragotela, egia bada ere, honez gero ezker-tiar lagundu baino gehiago, be-hatzipak jartzen ez ote dizkieten, galde genezake. Edo-ta, behintzat, oraindik gozartzen (eta gogotik es-plotatzen) duten ospea, eta destinatuko ez dizkiegun merezimenduak, gorabehera, ezker-tiarrentzat zeharo interesik gabekoak ez ote diren bilakatu, denborare-kin batera ere eboluzionatzeagatik. Bere eginkizuna bete zuten fase bat perpetuazten ari dira. Aurrera sgitzea beti salto bat hutsean egitea bait da. Eta beren buruak gaitzako bildur dira.

Era berean, progresista sonatuak izandako batzuk franko kontserbadore bihurturik agiri zaizkigu iada-nik (apaiz batzuk, esaterako). Besteren batzuk Al-derdi klasikoetan altxora bihurtu dira, damuz beteta, lehenago Alderdi haletzen kritikoa amorratu bezala deskakatu ondoren. Hasiera berri bat abiatu ondo-ren, ez dute aurrerabiderik aurkitzen, eta bide "za-harretara" itzuli dira.

Kontra egote hutsak eta etorkizunaren utopia arruntak ez bait dute ezker-tiarren hasera besterik eza-gutarazten. Ezker-tiar ere forma hartu behar du; teo-ria eta programa konkretu batetarentz desargorlatu behar du. Baina geldi gaitzen oraindik, ezker sotile-naren ezagarrietan (jarraitzeko).

JOXE AZURMENDI

ETXE BIZITZA BAT ZURETZAT IZAN DITEKE

¿zergatik saiatu ez?

ZOKKETA 3 BIZITZA

Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa Erbesteratuen ta Aldijakiñeko milla pezeta sartuekero
 Probintzialak saritutako zenbakiak kartillak sartuko dira. Aldi-jakiñeko kartilla bakoitzaren
 dauzkatenak. Gipuzkoa'n nai Jartzen diran milla pezeta bakoitzeko zenbaki bat emango da, beste zenbaki bat jarrita
 duten errian 800.000 pezetako bizi-tza bat erosi dezakete. ta beste zenbaki bat jarrita
 Zokketa ontan Noiznaiko, Bizitzako, dauden 5.000 pezeta bakoitzeko,

APIRILLA'REN 13 ARTE

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



FOTOGRAFIA BAIKO DE LIZARRA 1974